



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilak 12

Vitoria-Gasteiz, 12 de abril de 2022

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZAK ETA UPV/EHUK HITZARMEN BAT SINATU DUTE AGENTEAK KRIMINOLOGIAREN ETA BIKTIMOLOGIAREN ARLOAN PRESTATZEKO

- **Hitzarmen berriak lau urteko indarraldia izango du, eta urtean 125.000 euroko dirulaguntza**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Segurtasun Sailaren eta UPV/EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuaren (IVAC-KREI) artean Ertzaintzako agenteak kriminologiaren eta biktimologiaren arloan prestatzeko eta segurtasun publikoarekin erlazionatutako jarduera akademikoak egiteko lankidetzak-hitzarmen berria sinatzeari. Besteak beste, delituei aurrea hartzeko ereduak, ekintza-planeak, delituak egiteko arrisku-faktoreak eta abarri buruzko azterlanak eta txostenak egiteaz arduratuko da.

Hitzarmen berriarekin 2000. urtean sinatutakoa eguneratuko da, eta lau urteko indarraldia izango du eta urtean 125.000 euroko dirulaguntza jasoko du. Berrikuntza moduan, Kriminologiaren Euskal Institutuak kriminologiaren eta biktimologiaren arloko formakuntza-ikastaroak emango ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako agenteen garapen profesionalerako. Horrez gainera, gai horren inguruan ikastaroak, jardunaldiak eta bestelako formakuntza-jarduerak ere sustatuko ditu, besteak beste, “*Parez-parez*” jardunaldiak, edo UPV/EHUren udako ikastaro bat Miramar Jauregian.

Bi erakundeak 1996tik ari dira elkarlanean, ikuspegi zientifikotik, delitugintzaren prebentzioarekin eta tratamenduarekin eta Euskadiko herritarren segurtasuna bermatzearekin zerkusia duten jardueretan, UPV/EHUko Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC-KREI) egindako azterlanen bidez.

Segurtasun Sailaren hiru ordezkariak eta UPV/EHUren ordezkari batek osatutako Jarraipen Batzordeak koordinatuko eta onartuko du garatu beharreko jarduera zehatzen urteko programa.

Lana eta Enplegua

ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOAK 2.071 MILIOI EURO AURREIKUSTEN DITU 80.000 ENPLEGU SUSTATZEKO ETA 23.000 ENPRESA LAGUNTZEKO 2024RA ARTE

2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoak 2.071 milioi euro bideratzea aurreikusten du 80.000 enplegu sortzea sustatzeko, 23.000 enpresa laguntzeko eta 48.100 langabe birkualifikatzeko. Bere helburuen artean, kalitatezko enplegua sustatzea nabarmentzen da, pertsona guztiak gizarteratzeko eta laneratzeko baldintzetan.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Idoia Mendia Lan eta Enpleguko sailburu eta lehendakariordearen proposamenez, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa onartu du gaur. Plan horren bidez, Euskadik postpandemian bultzada sozioekonomikoa ematen lagundu nahi da, hiru trantsizioak ezarriz, digitala, energetiko-klimatikoa eta demografikoa, bai eta enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa sustatzea ere, kontratu sozial berri baterako.

Planaren erronka ez da soilik enplegu gehiago sortzea, baizik eta enplegu gehiago sortzea kalitatezkoa eta pertsona guztiak erabat gizarteratzeko eta laneratzeko aukera emango duten baldintzetan. Gizarte-eragileen artean beharrezko orekak lortzea da helburua, ekonomia lehiakor eta globalizatu batean helburu hori posible izan dadin.

Planaren helburu kualitatiboak honako hauek dira: enpleguaren behin-behinekotasuna, nahi gabeko partzialtasuna, lan-istripuak, lan-merkatuan genero-berdintasuna sustatzea, gazteen enplegua, iraupen luzeko langabezia murriztea eta enplegatuen nahiz langabeen enplegua eta prestakuntza babestea hiru trantsizioetarako. Era berean, talde kalteberei eta enplegurako orientazio-, ekintzazailtza-, laguntza- eta berrikuntza-zentroen sareari laguntzea bilatzen du, LANBIDEn esku hartzeko eredu berri bat garatzea, laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak garatzea eta Enpleguaren Euskal Legea egitea.

Kopuru handiak honako hauek dira: 80.000 enplegu sustatzea, 23.000 enpresari laguntzea, 43.000 pertsonaren gaikuntza eta kualifikazioa hobetzea, beste 16.000 pertsona prestatzea gaitasun digitaletan, 5.000 pertsona gaitzea zaintzaren sektorean, 52.000 langileren enplegarritasuna hobetzea eta langabezia-tasa % 10etik behera jartzea.

Plan hori bat dator Enpleguaren Espainiako Estrategiarekin, Gizarte Eskubideen Europako oinarriarekin, Garapen Jasangarrirako Helburuekin, 2030 Agendarekin, Next Generation UE programarekin, Ekonomia Berreskuratu, Eraldatu eta Biziberritzeko Planarekin, legegintzaldi honetako 2020-24ko Gobernu Programarekin, Euskadiko Suspertze Ekonomikorako eta Enplegurako 2020-24ko Berpiztu Programarekin eta saileko beste plan eta programa batzuekin. Era berean, enpleguaren arloan hiru foru-aldundiek eta hiru euskal

hiriburuetako udalek kontuan hartzen dituzten planak eta programak deskribatzen ditu.

Lana eta Enplegua

GOBERNU KONTSEILUAK ERAKUNDE SINDIKALEI 2022KO DIRU-LAGUNTZAK EMATEN HASTEAN ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du hauteskunde sindikalen batzordea eta lurralde-batzordeak osatzen dituzten erakunde sindikalei 2022rako diru-laguntzak emateko prozedura hastea.

Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, eta 237/2000 Dekretua aplikatuz, 737.331 euro banatzeko prozedura hasi da. Diru-laguntza jasoko duten erakundeak ELA, LAB, CCOO eta UGT dira, 1999ko urriaren 20ko sindikatuarteko akordioan ezarritakoaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hauteskunde sindikalen prozesuak kontrolatzeko eta ikuskatzeko batzordeetan parte hartzen duten aldetik.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

IRAGARRI DIRA NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAN (NPB) 2022RAKO EMANGO DIREN ZUZENEKO LAGUNTZAK, 44 MILIOI EURO INGURUKOAK

- **Zenbateko handienak honako hauei dagozkie: Oinarrizko ordainketa (21,5 milioi), Ordainketa berdea (11 milioi) eta Laguntza sozialak (9,55 milioi)**

Eusko Jaurlaritzak Nekazaritza Politika Bateratuan (NPB) 2022rako emango diren zuzeneko laguntzak iragarri ditu, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburuaren aginduz arautzen direnak. Ekitaldi honetako laguntzen zenbatekoa **44 milioi eurokoa** izango dela zenbatetsi da. Laguntzen osotasuna Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak finantzatzen du, eta gobernu autonomikoaren Erakunde Ordaintzailearen bidez ordaintzen dira.

Urteko ordainketak honela banatuko direla aurreikusten dugu:

- Oinarrizko ordainketa: 21,5 milioi
- Ordainketa berdea (greening): 11 milioi
- Laguntza sozialak: 9,55 milioi
- Nekazari Txikientzako Erregimen Erraztua: 1,25 milioi
- Nekazari gazteak: 0,7 milioi

Itxitako azken urteetan laguntza hauetan egindako ordainketen arabera, azkenaldian batez beste 44 milioi euro inguru jasotzen ari garela berresten da (2017an 43,52 milioi; 2018an 43,54 milioi; 2019an, 43,03 milioi; 2020an, 42,99 milioi eta 2021ean 2020an 45 milioi).

Laguntzen helburua da, belaunaldien arteko erreleboa lortzea, nekazaritza-sektorea modernizatzea, elikakatean berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzea, nekazaritzako elikagaien industria babestea eta kalitate-bereizgarrien balio erantsia indartzea, besteak beste. Halaber, ingurumena eta paisaia naturala babestu nahi dituzte, nekazaritzako inguruan oinarrizko zerbitzuak hornitu eta nekazaritzako eta itsasertzeko inguruan lanpostuak sortu eta dibertsifikatu.

Eskaerak aurkeztea

Eskaerak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren menpeko Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan edo legeak aurreikusitako edozein lekutan aurkeztuko dira. **Epea datorren apirilaren 30ean amaituko da. Hala ere, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren ebazpen bidez aldatu ahal izango da epea, betiere Europar Batasunak horretarako baimena ematen badu.** Alabaina, laguntza-eskabideak onartuko dira ezarritako epea amaitu eta hurrengo 25 egun naturaletan, baina horrelakoetan zenbatekoak ehuneko bat murriztuko dira, data hori gainditzen den egun baliadun bakoitzeko. Atzerapena 25 egun baino gehiagokoa bada, eskaera onartezintzat joko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen bidez egingo dira ordainketa horiek. Izan ere, funtsak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan jasotzen dira. Araudi komunitarioak eskatutako baldintzak bete ondoren, Erakunde Ordaintzaileak laguntzen onuradunei ordainduko die. Laguntzen kudeaketa foru-aldundiei dagozkie eta, horiekin sinatutako hitzarmenen arabera, foru-aldundiek sartuko diete onuradunei laguntzaren zenbatekoa, bulego

likidatzaile

ofizialak

direlako.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK UKRAINAKO GERRAREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO 158M € eta 43M € BIDERATZEA ONETSI DU ERASANDAKO ENPRESEN LIKIDEZIA BERMATZEKO

Gobernu Kontseiluak ekonomia dinamizatzeko, enpleguari eusteko eta pertsona eta familia ahulenei laguntzeko neurri-sorta onetsi du gaur, Ukrainako gerraren ondorioei aurre egiteko (158 M €). Hala, bi funts espezifiko sortzea erabaki da:

ERRESKATE SOZIALEKO FUNTSA: 15,1M €-koa, ondokoak finantzatzeko: euskal herritar kalteberentzako gizarte-laguntza osagarriak (GLL handitzea, pobrezia energetikoa, etxerik gabeko pertsonen integrazioa, baliabide osagarriak familia-laguntzarik gabeko gazteentzat, adineko pertsona kalteberei laguntzeko tokiko sareak eta “Azken sarea Indartzen” sendotzea) eta errefuxiatu ukrainarrak hartzeko laguntza sozialak (lehen harrerako programa, “Azken sarea indartzen Ukraina” sarea, migratzaileak hartzeko tokiko sareak, errefuxiatuentzako laguntza psikologikoko programa eta hezkuntza-errefortzua Ukrainako gazteentzat).

ERRESKATE EKONOMIKOKO FUNTSA: 142,9M €-koa, ondokoak finantzatzeko: laguntza osagarriak enpresa eta mikroETEentzat (Bilakatu programa zabaltzea, enpresentzako laguntza-programa, gas-industria intentsiboetarako laguntzak, parke teknologiko eta poligonoetako alokairuen atzerapena, lege-aholkularitza, etab.), lehen sektoreko enpresentzat (nekazaritza-abeltzaintzako sektorerako zuzeneko laguntzak, arrantza-sektorerako zuzeneko laguntzak eta Handitu programa berria) eta merkataritza-sektorearentzat (kontsumoa sustatzeko programa eta txikizkako merkataritza-sektorea zuzenean babesteko programa).

Era berean, enpresen LIKIDEZIA BERMATZEKO eta enpleguari eusteko, 43M € mobilizatuko dira erasandako sektoreentzako kredituetan, Finantzen Euskal Institutuaren aurrekontuaren barruan.

Eusko Jaurlaritzak finantza-laguntzak aktibatu nahi ditu ETEentzat eta autonomoentzat, eta mailegu-lerroak prestatu sektore jakin batzuetako enpresentzat (nekazaritza-sektoreko lehengaiak inportatzen dituzten enpresak eta pentsua fabrikatzen duten enpresak, besteak beste) beharrezko finantzaketa merkatuan jartzeko. Gainera, urtebete luzatu da COVID finantzaketa-lerroan emandako maileguen gabealdia.

ERANSKINA

ERRESKATE SOZIALEKO FUNTSA	GUZTIRA M€	2022	2023	2024
A) GIZARTE-LAGUNTZA OSAGARRIAK EUSKAL HERRITAR KALTEBERAK	9,3	9,3		
1. Laguntza osagarriak Gizarte Larrialdia eta pobrezia energetikoa	3,7	3,7		
2. Laguntza osagarriak etxegabeak integratzeko	0,6	0,6		
3. Baliabide osagarriak familia-laguntzarik gabeko gazteak	1,5	1,5		
4. Tokiko laguntza-sareak adineko kalteberak	0,5	0,5		
5. "Azken sarea Indartzen" SAREA	3,0	3,0		
B) GIZARTE-LAGUNTZAK UKRAINAKO ERREFUXIATUAK HARTZEKO	5,8	5,8		
1. Lehen harrerako programa	1,5	1,5		
2. "Azken sarea indartzen Ukraina" SAREA	3,0	3,0		
3. Loturak (Migratzaileak hartzeko tokiko sareak)	0,5	0,5		
4. Laguntza psikologikoko programa errefuxiatuentzat	0,5	0,5		
5. Aukerak suspertzen eta hezkuntza-errefortzua Ukrainako gazteak	0,3	0,3		
GIZARTE-ERRESKATEA FUNTS OSAGARRIA GUZTIZKOA	15,1	15,1		
EKONOMIA-ERRESKATEA FUNTSA				
A) Laguntza osagarriak enpresak eta mikroETEak	62,9	38,1	11,3	13,5
1. Bilakatu programa zabaltzea	27,0	2,7	10,8	13,5
2. Enpresentzako laguntza-programa	20,0	20,0		
3. Laguntzak gas-industria intentsiboa	5,0	5,0		
4. Alokairuak atzeratzea parke teknologikoak eta poligonoak	3,7	3,7		
5. Lege-aholkularitza	0,2	0,2		
6. Laguntza-programa gizarte-ekonomiako enpresak	5,0	5,0		
7. Laguntza-programa gizarte-ekintzaitzaren arloa	1,0	1,0		
8. Laguntza-programa energia-kontsumoko kooperatibak sustatzeko	1,0	0,5	0,5	
B) Laguntza osagarriak lehen sektoreko enpresak	60,0	45,0	15,0	
1. Zuzeneko laguntza-programa nekazaritza-eta abeltzaintza-sektorea	16,0	16,0		
2. Zuzeneko laguntza-programa arrantza-sektorea	14,0	14,0		
3. Handitu programa	30,0	15,0	15,0	
C) Laguntza osagarriak merkataritza-sektorea	20,0	20,0		
1. Kontsumoa sustatzeko programa	5,0	5,0		
2. Zuzeneko laguntza-programa txikizkako merkataritza-sektorea	15,0	15,0		
EKONOMIA-ERRESKATEA FUNTS OSAGARRIA GUZTIZKOA	142,9	103,1	26,3	13,5
GUZTIZKOA	158,0	118,2	26,3	13,5

LIKIDENZIA-NEURRI OSAGARRIAK	2022-2024	2022	2023	2024
A) Likidenzia-laguntzak Finantzen Euskal Institututik	40,0			
1. Kreditu-lerroa finantzaketa, fakturak, aurrerapenak, eskariak eta salmentak	10,0			
2. Likidenzia-laguntzak gatazkak erasandako enpresentzat	10,0			
3. Finantzaketa-lerroa nekazaritza-sektoreko lehengaien inportatzaileak	10,0			
4. Kreditu-lerroak zirkulatzailea pentsua fabrikatzen duten enpresentzat	10,0			
B) Dekretuak 2020 eta 2021 zirkulatzailea Eusko Jaurlaritzaren eta Elkargiren artean	3,0	1,5	1,5	
2. Urte 1eko gabealdia zabaltzea 2020 eta 2021 zirkulatzaile-lerroen operazioak (50/2020 eta 106/2021 Dekretuak)	3,0	1,5	1,5	
LIKIDENZIA-NEURRI OSAGARRIAK GUZTIZKOA	43,0	1,5	1,5	

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 930.000 EURO BIDERATU DITU BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK BURUTZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, bizialdi osoko ikaskuntza erabilgarriko jarduerak burutzeko dirulaguntzatarako deialdia egiten duen Agindua. Deialdi honek 930.000 euroko diru-kopurua du.

Deialdi honek bizialdi osoko ikaskuntzako hiru jarduera mota laguntzen ditu diruz. Jarduera horiek ezagutzaren edozein arlotakoak izan daitezke, betiere helduen ezagutza, konpetentzia eta gaitasun-maila zabaltzeko eta herritar aktiboak sustatzea helburu hartuta:

- Prestakuntza-jarduera espezifikoak, pertsona talde jakin baten prestakuntza-beharrei erantzuteko diseinatu eta planifikatutakoak (235.000 €).
- Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak (595.000 €).
- Prestakuntzako edo hezkuntzako metodologia berrien esperimentazioari buruzko proiektuak; ezagutzaren belaunaldi arteko transferentziari buruzkoak, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzeari buruzkoak, edota bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako beste edozein (100.000 €).

Deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango dira, laguntzaren xede den jarduera garatzeko zuzenean inplikaturik dauden eta ezinbestekoak diren langileen gastuak, bai eta diruz lagundutako jarduera garatzetik zuzenean eratorritako funtzionamendu-gastuak ere.

Onartuak gertatzen diren proiektuek, eta ondorioz deialdi honen bidezko finantzazioa eskuratzen dutenek, 2022an zehar hasi beharko dute, eta datorren urteko uztailaren amaiera bitartean garatu ahal izango dira. Diru-laguntza hauen onuradun izan daitezke: Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuak; udalak; tokiko edo eskualdeko garapen agentziak; euren helburu sozialen artean formazioa duten udal-elkargoak; Euskadin egoitza duten unibertsitateak; bizialdi osoko ikaskuntzaren arloan jarduerak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak; eta euren helburuen artean formazioa duten merkataritza-elkarteak edo ekonomia sozialeko elkarteak.

Bizialdi osoko ikaskuntzaren esparruko jardueren eskaintza zabal eta eguneratua izateak aukera ematen die herritarrei ezagutzak lantzeko eta zabaltzeko. Baina horrez gain, baita ezagutzak eguneratzeko eta gaitasun profesionalak hobetzeko ere. Era horretan, enplegarritasuna hobetzeko eta ongizate sozial zein ekonomikoan aurrera egiteko bideak ere zabaltzen zaizkio gizarteari.

Hezkuntza

526.000 EURO LANBIDE HEZIKETAKO ITUNPEKO IKASTETXEETAKO ESKAITZA PARTZIALERAKO

Gobernu Kontseiluak gauko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Lanbide Heziketako irakaskuntzak ematen dituzten Euskadiko itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduriko Agindu bat. Honen bidez, dei egiten zaie aipaturiko ikastetxeei 2022-2023 ikasturterako dirulaguntzak eska ditzaten, eskaintza partzialeko modalitatean heziketa-zikloak emateko. Deialdi honen baitan eman daitezkeen dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 526.000 eurokoa da.

Kopuru hori honela banatuko da: %70 industria-eremuko zikloetara bideratuko da, eta %30 zerbitzuen eremuko zikloetara.

Eskaintza partzialak, modulu edo ikasgai solteetan matrikula egiteko aukera ematen dio Lanbide Heziketako ikasleari. Ohiko matrikulan, aldiz, ikasleek ikasturteko modulu guztietan matrikulatu behar izaten dute. Eskola orduetan bertaratzeak derrigorrezkoa izaten jarraitzen du modalitate honetan, baina denbora gutxiago eskaintzen zaionez, ikasleak bestelako jarduera batzuekin bateratu dezake modulu hauek ikastea.

Kualifikazio maila hobetu nahi duten 18 urtetik gorako pertsoneri zuzendua izaten da eskaintza partziala, betiere Lanbide Heziketako zikloetara sartzeko baldintzak betetzen badituzte. Lanbide-modulu hori edo horiek gaindituz gero, ziurtagiri akademikoa eta lortutako konpetentziei gehitzeko akreditazio partziala eskuratzen ditu ikasleak. Matrikulazio epea ikasturte hasieran ireki ohi da.

2021-2022 ikasturte honetan, Lanbide Heziketako itunpeko 11 ikastetxek eskaintzen dute eskaintza partziala. Zehazki, 14 heziketa-ziklotako 76 modulu, erdi mailakoak nahiz goi mailakoak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK BI MILIOI EURO BIDERATUKO DITU PANDEMIAREN ONDORIOAK ARINTZERA ZINEMA-EMANALDIETARAKO ETA ZUZENeko MUSIKARAKO ARETO PRIBATUETAN

Gobernu Kontseiluak 2022an zinema-emanaldien eta zuzeneko musika-aretoen kudeaketaren eta zuzeneko musika sustapenaren profesional pribatuei zuzendutako COVID-19 laguntzak onartu ditu gaur.

COVID-19ak eragindako osasun-krisiak kulturaren sektorean emanaldiak eskaintzen dituztenei eragin die bereziki, besteak beste, zinema-aretoetan eta zuzeneko musika-aretoetan aritzen diren kultura-profesionalei. Galera ekonomiko hori arintzen laguntzeko, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2 milioi euro bideratuko ditu zinema-emanaldietako eta zuzeneko musika-aretoen kudeaketako eta zuzeneko musika-sustapeneko profesional pribatuei laguntzeko. Bi milioi horiek honela banatuko dira:

- 500.000 euro zinema-emanaldien kudeaketako autonomoentzako, enpresentzako eta erakunde profesional pribatuentzako.
- 1.500.000 euro musika-aretoen kudeaketako eta zuzeneko musika sustapeneko autonomoentzako, enpresentzako eta zuzeneko erakunde profesional pribatuentzako.

Laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da 2021eko ekitaldiko fakturazioan % 20ko murrizketa edo handiagoa izatea 2019ko ekitaldikoaren aldean. 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean jarduerari ekin dioten erakundeen kasuan, 2020ko ekitaldiko fakturazioa hartuko da kontuan.

Zuzeneko musika-aretoak edo zuzeneko musika-sustatzaileak

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 1.500.000 euroko partida du, beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan arlo hauetakoren batean garatzen duten autonomoentzako, enpresentzako eta erakunde profesional pribatuentzako laguntzetarako:

- **Zuzeneko musika-aretoen kudeatzaileak:** Laguntzak honako hauek jaso ahal izango dituzte:
 - Aretoaren titulartasuna dutenek eta/edo bere programazio kudeatzen dutenek.
 - Aretoaren legezko gutxieneko edukiera 120 pertsonakoa denean.
 - 2019an, 100.000 biztanletik gorako herrietan, gutxienez zuzeneko 20 musika-ekitaldi programatu izana, ordainpeko sarrerarekin, edo, gutxienez, zuzeneko 12 musika-ekitaldi programatu izana, gainerako herrietan sarrera ordainduarekin.
 - Musika-programaziorako ekipamendua eta teknikariak izatea.

- **Zuzeneko musika-sustatzaileak:** Gutxienez zuzeneko 10 musika ekitaldi antolatu izana, ordainpeko sarrerarekin, 2019an.

Diruz lagundutako proiektu bakoitzak 170.000 euro jasoko ditu gehienez zuzeneko musika-aretoen kudeatzaileen kasuan, eta 30.000 euro musika-sustapenaren profesionalen kasuan.

Zinema-emanaldietarako laguntzak

Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten eta honako baldintza hauek betetzen dituzten Europako eta/edo Latinoamerikako zinema-emanaldietako autonomoei, enpresei eta erakunde profesional pribatuei zuzenduta daude laguntza hauek:

- Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako zinema-aretoen edo zinema-komplexuen kudeatzaileak izatea.
- Erakustokiak deialdia argitaratu baino sei hilabete lehenagotik egon beharko dira jendearentzat zabalik, eta leihatila-sistema eta diru-sarreraren aitorpena izango dituzte. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileek Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren Enpresa Zinematografikoen Administrazio Erregistroan izena emanda egon beharko dute.
- 2021ean gutxienez programazioaren % 40a Europako edo Iberoamerikako filmak programatu izana.

Diruz lagundutako proiektuek jaso ahal izango duten gehieneko zenbatekoa kudeatutako pantaila kopuruaren arabera izango da. Horrela, bat edo bi pantaila kudeatzen dituzten pertsona, enpresa edo erakundeek 10.000 euro jasoko dituzte gehienez, kopuru horri 5.000 euro gehitu ahal izango dira kudeatutako pantaila bakoitzeko. Nolanahi ere, jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz izango 100.000 euro baino handiagoa.

Eskariak aurkezteko epea maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 4an bukatuko da.

Seguridad

EL GOBIERNO VASCO Y LA UPV/EHU SUSCRIBEN UN CONVENIO PARA LA FORMACIÓN DE AGENTES EN MATERIA CRIMINOLÓGICA Y VICTIMOLÓGICA

- **El nuevo convenio tiene una vigencia de cuatro años y una subvención anual de 125.000 €**

El Consejo de Gobierno ha autorizado la suscripción de un nuevo convenio de colaboración entre el Departamento de Seguridad y el Instituto Vasco de Criminología (IVAC-KREI) de la UPV/EHU para formar al personal de la Ertzaintza en el ámbito criminológico y victimológico y el desarrollo de actividades académicas relacionadas con la seguridad pública. Por ejemplo, se encargará de elaborar estudios e informes sobre modelos de prevención de delitos, planes de acción, factores de riesgo de comisión de delitos, etc.

El nuevo convenio, que actualiza el suscrito en el año 2000, tendrá una vigencia de cuatro años con una subvención anual de 125.000€. Como novedad, el Instituto Vasco de Criminología impartirá cursos de formación para el desarrollo profesional de las y los agentes en la Academia Vasca de Policía y Emergencias en el ámbito criminológico y victimológico. Además, impulsará cursos, jornadas y otras actividades formativas en esta materia, como las jornadas “*Parez-pare*”, o un curso de verano de la UPV/EHU en el Palacio Miramar.

Ambas instituciones colaboran desde 1996 en acciones relacionadas con la prevención y el tratamiento de la delincuencia, así como la garantía de la seguridad de la ciudadanía vasca, desde el punto de vista científico, a través de estudios realizados por el Instituto Vasco de Criminología (IVAC-KREI) de la UPV/EHU.

Una Comisión de Seguimiento, compuesta por tres representantes del Departamento de Seguridad y una persona delegada de la UPV/EHU, será quien coordine y apruebe el programa anual de actividades concretas a desarrollar.

Trabajo y Empleo

EL PLAN ESTRATÉGICO DE EMPLEO PREVÉ DESTINAR 2.071 MILLONES DE EUROS PARA INCENTIVAR 80.000 EMPLEOS Y APOYAR A 23.000 EMPRESAS HASTA 2024

El Plan Estratégico de Empleo 2021-2024 prevé destinar 2.071 millones de euros para incentivar la creación de 80.000 empleo, apoyar a 23.000 empresas y recualificar a 48.100 personas desempleadas. Entre sus objetivos destaca promover empleo de calidad y en condiciones que permitan la inclusión sociolaboral de todas las personas.

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy a propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, Idoia Mendia, el Plan Estratégico de Empleo 2021-2024, un instrumento con el que se pretende contribuir al relanzamiento socioeconómico de Euskadi en la postpandemia, implementando las tres transiciones, digital, energética-climática y demográfica, así como promover un empleo inclusivo y de calidad para un nuevo contrato social.

El reto del Plan no es solo generar más empleo, sino que este sea de calidad y en condiciones que permitan la inclusión sociolaboral plena de todas las personas. Se trata de lograr los equilibrios necesarios entre los agentes sociales para que este propósito sea posible en una economía competitiva y globalizada.

Los objetivos cualitativos del Plan se centran en contribuir a reducir la temporalidad en el empleo, la parcialidad no deseada, los accidentes laborales, fomentar la igualdad de género en el mercado laboral, el empleo juvenil, reducir el paro de larga duración y apoyar el empleo y la formación tanto de las personas empleadas como desempleadas para las tres transiciones. Asimismo, busca el apoyo a colectivos vulnerables, a la red de centros de orientación, emprendimiento, acompañamiento e innovación en el empleo, desarrollar un nuevo modelo de intervención atención y servicios en Lanbide, el desarrollo de itinerarios personalizados de inserción, así como la elaboración de la Ley Vasca de Empleo.

Las grandes cifras se concretan en incentivar 80.000 empleo, apoyar a 23.000 empresas, mejorar la capacitación y cualificación de 43.000 personas, formar a otras 16.000 en capacidades digitales, habilitar profesionalmente a 5.000 personas en el sector de los cuidados, mejorar la empleabilidad de 52.000 y situar la tasa de paro por debajo del 10%.

Este Plan está alineado con la Estrategia Española de Empleo, el Pilar Europeo de los Derechos Sociales, los Objetivos de Desarrollo Sostenible, la Agenda 2030, el programa Next Generation UE, el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de la Economía, el Programa de Gobierno 2020-24 de la actual legislatura, el Programa Berpiztu para la Reactivación Económica y el Empleo de Euskadi 2020-24 y otros planes y programas departamentales. A su vez, describe los planes y programas que en el ámbito

del empleo contemplan las tres diputaciones forales y los ayuntamientos de las tres capitales vascas.

Trabajo y Empleo

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA INICIAR LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DE 2022 A ORGANIZACIONES SINDICALES

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy iniciar el procedimiento de concesión, para el año 2022, de las subvenciones a las organizaciones sindicales integrantes del comité de elecciones sindicales y de los comités territoriales.

A propuesta de la Vicelehendakari y consejera de Trabajo y Empleo, y en aplicación el decreto 237/2000, se inicia el procedimiento para el reparto de 737.331 euros. Las organizaciones destinatarias de la subvención son ELA, LAB, CCOO y UGT, como participantes en los distintos comités a través de los cuales se controla y supervisa los procesos de elecciones sindicales celebrados en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi conforme a lo establecido en el acuerdo intersindical sobre esta materia de fecha 20 de octubre de 1999.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

CONVOCADAS LAS AYUDAS DIRECTAS DE LA POLÍTICA AGRARIA COMÚN (PAC) PARA 2022, CON UNA CUANTÍA DE 44 MILLONES

- Los mayores montantes corresponden a Pago Básico (21,5 millones), Pago Verde (11 millones) y Ayudas Sociales (9,55 millones)

El Gobierno Vasco ha convocado las ayudas directas de la Política Agrícola Común (PAC) para el ejercicio 2022, reguladas mediante Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente. La estimación de la cuantía de estas ayudas para el presente ejercicio asciende a la cantidad de **44 millones de euros**, que se financian en su totalidad con cargo al fondo comunitario FEAGA (Fondo Europeo Agrícola de Garantía) y se pagan a través del Organismo Pagador del ejecutivo autónomo.

El desglose de la previsión anual de pagos es:

- Pago Básico: 21,5 millones
- Pago Verde (greening): 11 millones
- Ayudas Sociales: 9,55 millones
- Régimen Simplificado PA: 1.25 millones
- Jóvenes Agricultores: 0,7 millones

Según los pagos realizados en estas ayudas durante los últimos años ya cerrados, se puede comprobar la permanencia en el tiempo de un importe medio cercano a los 44 millones de euros (43,52 en 2017, 43,54 en 2018 y 43,03 en 2019, 42,99 en 2020 y 45 en 2021).

El objetivo de estas ayudas es conseguir el relevo generacional, la modernización del sector agrario, el fomento de la innovación y la competitividad en la cadena alimentaria, la formación en el ámbito agrario, el apoyo a la industria agroalimentaria y la potenciación del valor añadido de los distintivos de calidad. Asimismo, se persigue la protección del medio ambiente y el paisaje natural, la dotación de servicios básicos en las zonas rurales y la diversificación y la creación de empleo en el medio rural-litoral

Presentación de solicitudes

Las solicitudes se dirigirán al Director de Agricultura y Ganadería del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco y se presentarán en la Oficina Comarcal Agraria correspondiente, o bien en cualquiera de los lugares o modos previstos por la ley. **El plazo finaliza el próximo 30 de abril, aunque se podrá modificar el mismo mediante Resolución del Director de Agricultura y Ganadería siempre que ello estuviera autorizado por la Unión Europea.** No obstante, se admitirán solicitudes de ayuda hasta los 25 días naturales siguientes a la fecha de finalización del plazo establecido, en cuyo caso los importes se reducirán un uno por ciento por cada día hábil en que se sobrepase dicha fecha. Si el retraso es superior a 25 días, la solicitud se considerará inadmisibile.

La ejecución de estos pagos se realiza a través del Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ya que los fondos se recogen en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Una vez cumplidos los requisitos exigidos por la normativa comunitaria, el Organismo Pagador procede a ejecutar el pago a los beneficiarios solicitantes de las ayudas. La gestión de estas ayudas corresponde a las Diputaciones Forales y, según los convenios firmados con las mismas, son éstas, en su calidad de oficinas liquidadoras oficiales, quienes proceden a ingresar el importe de la ayuda al beneficiario.

Economía y Hacienda

EI GOBIERNO VASCO APRUEBA MEDIDAS PARA HACER FRENTE A LOS EFECTOS DE LA GUERRA EN UCRANIA POR VALOR DE 158M€ y 43M€ PARA GARANTIZAR LA LIQUIDEZ DE EMPRESAS AFECTADAS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el paquete de medidas para dinamizar la economía, mantener el empleo y apoyar a las personas y familias más vulnerables, y así hacer frente a los efectos de la guerra en Ucrania, por valor de 158M€. Así, se ha acordado la creación de dos fondos específicos:

FONDO RESCATE SOCIAL: dotado con 15,1M€ y destinado a financiar ayudas sociales complementarias a personas vascas vulnerables (ampliación AES, pobreza energética, integración de personas sin hogar, recursos complementarios para jóvenes sin apoyo familiar, redes locales de apoyo a personas mayores vulnerables y refuerzo de la red “Azken sarea Indartzen”) y ayudas sociales para la acogida a personas refugiadas ucranianas (programa de primera acogida, red “Azken sarea indartzen Ucrania”, redes locales de acogida personas migrantes, programa de apoyo psicológico personas refugiadas y refuerzo educativo a jóvenes de Ucrania).

FONDO DE RESCATE ECONÓMICO: dotado con 142,9M€ destinado a financiar ayudas complementarias a empresas y micropymes (ampliación del programa Bilakatu, programa de ayudas a empresas, ayudas industrias gas intensivas, aplazamiento de alquileres en parques tecnológicos y polígonos, asesoramiento legal, etc.), a empresas del primer sector (ayudas directas al sector agro-ganadero, ayudas directas al sector pesquero y nuevo programa Handitu) y al sector comercial (programa de incentivo al consumo y programa de apoyo directo sector comercial minorista).

Así mismo, de cara a **GARANTIZAR LA LIQUIDEZ** de las empresas y mantener el empleo, se va a proceder a la movilización de 43M€ en créditos a los sectores afectados dentro del presupuesto del Instituto Vasco de Finanzas.

El Gobierno Vasco busca activar líneas de ayudas financieras a PYMES y autónomos e instrumentar líneas de préstamos para empresas de sectores determinados (empresas importadoras de materias primas del sector agrario y empresas fabricantes de pienso, entre otros), para poner en el mercado aquella financiación necesaria. Además, se amplía un año la carencia de los préstamos concedidos en la línea de financiación COVID.

ANEXO

FONDO DE RESCATE SOCIAL	TOTAL M€	2022	2023	2024
A) AYUDAS SOCIALES COMPLEMENTARIAS PERSONAS VASCAS VULNERABLES	9,3	9,3		
1. Ayudas complementarias de Emergencia Social y pobreza energética	3,7	3,7		
2. Ayudas complementarias integración de personas sin hogar	0,6	0,6		
3. Recursos complementarios para jóvenes sin apoyo familiar	1,5	1,5		
4. Redes locales de apoyo a personas mayores vulnerables	0,5	0,5		
5. RED "Azken sarea Indartzen"	3,0	3,0		
B) AYUDAS SOCIALES PARA ACOGIDA PERSONAS REFUGIADAS UCRANIANAS	5,8	5,8		
1. Programa de 1ª acogida	1,5	1,5		
2. RED "Azken sarea indartzen Ucrania"	3,0	3,0		
3. Loturak (Redes locales de acogida personas migrantes)	0,5	0,5		
4. Programa de apoyo psicológico personas refugiadas	0,5	0,5		
5. Aukerak suspertzen y refuerzo educativo jóvenes de Ucrania	0,3	0,3		
TOTAL FONDO COMPLEMENTARIO RESCATE SOCIAL	15,1	15,1		
FONDO DE RESCATE ECONÓMICO				
A) Ayudas complementarias a empresas y micropymes	62,9	38,1	11,3	13,5
1. Ampliación programa Bilakatu	27,0	2,7	10,8	13,5
2. Programa de ayudas a empresas	20,0	20,0		
3. Ayudas industrias gas intensivas	5,0	5,0		
4. Aplazamiento de alquileres parques tecnológicos y polígonos	3,7	3,7		
5. Asesoramiento legal	0,2	0,2		
6. Programa de ayuda para empresas de economía social	5,0	5,0		
7. Programa de ayudas en el ámbito del emprendimiento social	1,0	1,0		
8. Programa de ayudas para el fomento de cooperativas de consumo energéticas	1,0	0,5	0,5	
B) Ayudas complementarias a empresas del primer sector	60,0	45,0	15,0	
1. Programa de ayudas directas a sector agroganadero	16,0	16,0		
2. Programa de ayudas directas a sector pesquero	14,0	14,0		
3. Programa Handitu	30,0	15,0	15,0	
C) Ayudas complementarias al sector comercial	20,0	20,0		
1. Programa de incentivo de consumo	5,0	5,0		
2. Programa de apoyo directo sector comercial minorista	15,0	15,0		
TOTAL FONDO COMPLEMENTARIO RESCATE ECONÓMICO	142,9	103,1	26,3	13,5
TOTAL	158,0	118,2	26,3	13,5

<u>MEDIDAS COMPLEMENTARIAS DE LIQUIDEZ</u>	2022-2024	2022	2023	2024
A) Ayudas liquidez del Instituto Vasco de Finanzas	40,0			
1. Línea de crédito financiación facturas, anticipos, pedidos y ventas	10,0			
2. Ayudas a liquidez a empresas afectadas por el conflicto	10,0			
3. Línea de financiación importadores de materias primas de sector agrario	10,0			
4. Líneas de crédito de circulante para empresas fabricantes de pienso	10,0			
B) Decretos circulante 2020 y 2021 entre Gobierno Vasco y Elkargi	3,0	1,5	1,5	
2. Ampliación 1 año carencia de operaciones de líneas de circulante 2020 y 2021 (Decretos 50/2020 y 106/2021)	3,0	1,5	1,5	
TOTAL MEDIDAS COMPLEMENTARIAS DE LIQUIDEZ	43,0	1,5	1,5	

Educación

EDUCACIÓN DESTINA 930.000 EUROS PARA ACTIVIDADES REFERIDAS AL APRENDIZAJE A LO LARGO DE LA VIDA

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta del consejero de Educación, la Orden que convoca las ayudas para la realización de actividades que desarrollen acciones de aprendizaje útil a lo largo de la vida. Esta convocatoria cuenta con un importe global de 930.000 euros.

Esta convocatoria establece tres tipos de actividades de aprendizaje permanente que podrán ser objeto de financiación, realizadas en cualquier ámbito del conocimiento, y con la finalidad de incrementar el nivel de conocimientos, competencias y aptitudes de las personas adultas y promover la ciudadanía activa:

- Actividades específicas de formación, diseñadas y planificadas para dar respuesta a las necesidades formativas de un colectivo concreto de personas (235.000 €).
- Servicios de mediación de aprendizaje (595.000 €).
- Proyectos de experimentación sobre nuevas metodologías de formación y aprendizaje, transferencia intergeneracional del conocimiento, remoción de los obstáculos para acercar a la formación y potenciar el aprendizaje o cualquier otro aspecto del aprendizaje a lo largo de la vida (100.000 €).

Podrán subvencionarse mediante esta convocatoria, los gastos de personal directamente implicado e imprescindible para el desarrollo de la actividad para la que se ha obtenido la subvención, así como los gastos de funcionamiento directamente derivados del desarrollo de la actividad subvencionada.

Los proyectos que resulten aprobados y financiados mediante esta convocatoria, deberán iniciarse en el año 2022 y podrán desarrollarse hasta fin del mes de julio del próximo año. Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones: centros docentes privados que impartan enseñanzas de FP; los ayuntamientos; las agencias de desarrollo local y comarcal; sociedades municipales que tengan entre sus fines sociales la formación; las universidades sitas en el País Vasco; entidades sin ánimo de lucro que desarrollen acciones en el ámbito del aprendizaje a lo largo de la vida; y sociedades mercantiles o de economía social que entre sus fines tengan la formación.

Una oferta amplia y actualizada de actividades del ámbito del aprendizaje a lo largo de la vida permite a la ciudadanía, además de darle la oportunidad de cultivar y ampliar sus conocimientos, la actualización de sus conocimientos y la mejora de las competencias profesionales, como vía para la mejora de la empleabilidad y de progreso en su bienestar social y económico.

Educación

526.000 EUROS PARA LA OFERTA PARCIAL DE CICLOS FORMATIVOS EN CENTROS CONCERTADOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convoca a los centros docentes concertados de la Comunidad Autónoma del País Vasco que imparten enseñanzas de Formación Profesional, a solicitar subvenciones para la impartición de ciclos formativos en la modalidad de oferta parcial para el curso 2022-2023. El importe global de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria asciende a 526.000 euros.

Esta cantidad se distribuirá de la siguiente manera: 70% destinado a ciclos del ámbito industrial, y 30% para ciclos enmarcados dentro del ámbito de servicios. La Oferta Parcial ofrece al alumnado de FP la posibilidad de matricularse en módulos (o asignaturas) sueltos de forma independiente, a diferencia con la matrícula ordinaria que supone inscribirse en todos los módulos que componen el curso. La asistencia a clase sigue siendo obligatoria en esta modalidad, pero el tiempo que se dedica a ello es menor, lo que permite al alumnado realizar otras actividades mientras cursa los módulos.

Está dirigida a personas mayores de 18 años que deseen mejorar su nivel de cualificación y que cumplan con los requisitos de acceso a los ciclos formativos de FP. La superación del módulo o módulos profesionales llevará a obtener una certificación académica y una acreditación parcial acumulable de las competencias adquiridas. La matrícula se realiza coincidiendo con el inicio del curso académico.

Durante el presente curso 2021-2022, 11 centros concertados de Formación Profesional de Euskadi ofrecen, en la modalidad de Oferta Parcial, 76 módulos pertenecientes a 14 ciclos formativos, tanto de grado medio como de grado superior.

Cultura y Política Lingüística

**EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
DESTINARÁ DOS MILLONES DE EUROS A PALIAR LOS EFECTOS DE LA
PANDEMIA EN SALAS PRIVADAS DE EXHIBICIÓN CINEMATOGRAFICA Y
MÚSICA EN VIVO**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de las ayudas COVID-19 dirigidas a profesionales privados de la exhibición cinematográfica y de la gestión de salas de música en vivo y promoción musical en vivo.

La crisis sanitaria provocada por la COVID-19 ha afectado especialmente a profesionales de la cultura que sobre todo se dedican a la exhibición como son las salas de cine, salas de música en vivo... Para contribuir a paliar esa pérdida económica desde el departamento de Cultura y Política Lingüística se van a destinar 2 millones de euros para ayudar a profesionales privados de la exhibición cinematográfica y de la gestión de salas de música en vivo y promoción musical en vivo. Esos dos millones se repartirán de la siguiente manera:

- 500.000 euros para ayudar a personas autónomas, empresas y entidades profesionales privadas de la exhibición cinematográfica
- 1.500.000 euros para ayudar a personas autónomas, empresas y entidades profesionales privadas de la gestión de salas de música en vivo y promoción musical en vivo.

Para poder optar a las ayudas será necesario haber sufrido una reducción igual o superior al 20% en la facturación del ejercicio 2021 respecto al del ejercicio 2019. En el caso de las entidades que hayan iniciado su actividad entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2020 se tendrá en cuenta la facturación del ejercicio 2020.

Salas de música en vivo o promotores musicales en vivo

El Departamento de Cultura y Política Lingüística cuenta con una partida de 1.500.000 euros para las ayudas dirigidas a las personas autónomas, empresas y entidades profesionales privadas que desarrollen su actividad en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en alguna de estas áreas:

- **Gestión de salas de música en vivo**. Podrán acceder a las ayudas:
 - Los titulares de la sala y/o de la gestión de su programación.
 - Salas con un aforo mínimo legal correspondiente de 120 personas.
 - Salas que hayan programado durante el año 2019 un mínimo de 20 eventos musicales en vivo con entrada de pago, en poblaciones de más de 100.000 habitantes, ó un mínimo de 12 eventos musicales en vivo con entrada de pago en el resto de poblaciones.
 - Salas que cuentan con equipamiento y personal técnico para la programación musical.

- **Promotores de música en vivo** que hayan organizado al menos 10 eventos musicales en vivo con entrada de pago, durante 2019.

El importe que percibirá cada proyecto subvencionado nunca será superior a 170.000 euros en el caso de gestores de salas de música en vivo, y, a 30.000 euros en el caso de promotores musicales.

Ayudas a la exhibición cinematográfica

Estas ayudas van dirigidas a las personas autónomas, empresas y entidades profesionales privadas de la exhibición cinematográfica de cine europeo y/o latinoamericano que desarrollen su actividad en la Comunidad Autónoma de Euskadi y que cumplan los siguientes requisitos:

- Ser gestores de salas de exhibición cinematográfica o de complejos cinematográficos, ubicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Los espacios de exhibición deberán estar abiertos al público desde al menos seis meses antes de la publicación de la convocatoria, con un sistema de taquilla y declaración de ingresos. Asimismo, las personas o entidades solicitantes deberán estar inscritas en el Registro Administrativo de Empresas Cinematográficas del Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales.
- Haber programado en 2021 al menos un 40% de películas comunitarias o iberoamericanas, con respecto a la programación anual.

El importe máximo que podrán percibir los proyectos subvencionados dependerá del número de pantallas gestionadas. Así, las personas, empresas o entidades que gestionen hasta 2 pantallas, recibirán un máximo de 10.000 euros, pudiendo ser este máximo incrementado en 5.000 euros por cada pantalla añadida gestionada. En todo caso, la cantidad a recibir nunca será superior a 100.000 euros.

El plazo de presentación de las solicitudes comenzará el 05 de mayo y finalizará el 04 de junio.